

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kirol elkarteei zuzendutako 2023ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2023ko maiatzaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 696307.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/696307>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren eta gizartearen arloetako elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik, lege ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez bertan errolatuta badaude.

Bigarrena. Xedea

Aurrekontuaren muga barruan, Zuiako udalerrian kirol jarduerak antolatzeke diru-laguntzak ematea eta, orobat, herritarrek udal eskumeneko osagarri edo ordezkoren zerbitzuak eta jarduerak egiteko prestazioak eskuratzeko aukera berak edukitzea bermatzen duten helburuak zehaztea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 11an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Gastu hauek Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 341.481.000 partidaren kargura egingo dira. Partidaren zenbatekoa 26.000,00 euro da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2022/2023 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera zazpigarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, ALHAOn deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (izapideak/dirulaguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2023ko maiatzaren 19a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA